

Donostia-Gipuzkoa



Lurralde txikia

# filmatze handietarako



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbide, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena  
fomentosansebastián

# Ikus-entzunezko habitat paregabea

## Tokiko profesionalengatik

Donostia-Gipuzkoan, ikus-entzunezko sektorearen balio-kate osoa izan dezakezu: ideia, ekoizpena, postprodukzioa eta banaketa. Ikus-entzunezko gure industrian, **kalitate bikaineko profesionalak ditugu**, horrela bermatzen dituzten estatuko eta nazioarteko sari ezberdinak irabazi dituztenak.



30 Goya sari  
baino gehiago



Oscarretarako  
hainbat izendapen

## Pizgarri fiskalengatik

Donostia-Gipuzkoan, ikus-entzunezko sektorearentzako laguntza ez da hitz bakar batzuetan geratzen, baizik eta pizgarri fiskal garrantzitsuak daude. Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko ekoizpenen inbertsioek **%35eko** dedukzioa lortzen dute Sozietateen gaineko Zergan eta **%45ekoa** obra euskaraz filmatua bada. Lurrean filmaturiko atzerritar ekoizpenek, berriz, Euskadin egindako gastuen gaineko **%35eko** dedukzioa lortuko dute. Gainera, pizgarri horiei udal-tasen exentzioa gehi dakieke.

## Kokapenengatik

Lurrean txikia izanik, Donostia-Gipuzkoan **izaera desberdineko kokapenak** ditugu; modu horretan, eszenatoki ezberdinetan filmatu daiteke ibilbide luzeak egin beharrik izan gabe. Askotariko paisaiak: kosta, mendia, hiriak, landa-eremua,... filmatzeko behar duzun guztia Donostia-Gipuzkoan aurkituko duzu.

**%35eko dedukzioa  
Sozietateen gaineko  
Zergan eta %45ekoa obra  
euskaraz filmatua bada**

## Bizi-kalitatearengatik

Unibertsitate-ikasketak dituzten gazte asko, batez besteko per capita errenta altua eta **langabezia-tasa baxua**; gure lurraldeko bizi-kalitatearen adierazle nabariak dira. Eta ezin dira ahaztu bestelako balio ukaezinak: **kultura, gastronomia** eta **kirola**, gure gizartean oso errotuta daudenak.














# Esperientzia



El internado (Globomedia)



Rifkin's Festival (Woody Allen)

18 urteko ibilbidea

1700 filmatze

70 film luze

# baino gehiago



# Filmografia



**Ilargi Guztiak** / 2020  
Goya sarietarako hamabost nominazio



**Akelarre** / 2019  
Bost Goya sari



**Patria** / 2019  
Hiru Feroz sari, eta Forqué sari bat



**La trinchera infinita** / 2018  
Bi Goya sari eta Oscar sarietarako hautagaia



**Handia** / 2017  
Hamar Goya sari eta hamahiru nominazio



**Loreak** / 2014  
Oscarretarako hautagaia, ingelesa ez den beste hizkuntza batean egindako pelikula onena bezala



**8 apellidos vascos** / 2014  
Espainian diru gehien bildu duen espainiar pelikula



**La herida** / 2013  
Bi Goya sari eta Feroz sari bat



# Ingurune segurua eta lagunkoia

Donostia-Gipuzkoa Europako kokapen pribilegiatuetariko bat da. Hainbat herrialdetatik gertu aurkitzen da; paisaia-aniztasuna du; esperientzia 1.700 filmatze eta grabaketa baino gehiagorekin; tokiko industria eta profesionalak nabarmenak dira; bizi-kalitate, segurtasun, enplegu, hezkuntza eta kualifikazio mailan estandarrak ditu; eta lurralde abegitsu eta atseginean eraikitzen da.



## Zine Jaialdiak


Lurraldean ikus-entzunezko sektorearen erreferente bilakatzen duten jaialdi ezberdinak egiten dira:

- Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.
- Dock of The Bay Jaialdia.
- Giza Eskubideen Jaialdia.
- Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Donostiako Astea.

## Gastronomia

11 jatetxeren artean 18 michelin izar banatzen dira; ondorioz, Donostia-Gipuzkoa metro karratuko izar gehien dituen lurraldea da munduan.





# Harremana

Arretarako telefonoa

**+34 943 48 28 00**

Harremanetarako mail-a

**filmcommission@donostia.eus**

Egoitza

**San Roque Kalea, 120**

**20009 Donostia**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbidetza, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena  
fomentosansebastián